

Proiektuetarako jarduerak

LH. Erdi Maila eta Goi Maila. 16-20+ urte

eTwinelevator Pitch

	Lanbide-Heziketa 16-20 urte
	Maila Ertaina
	Denboralizazioa 5-6 saio
	Kideak 3-4 kide

JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Nazioarteko lantaldeetan, ikasleek haien lanbide-espezialitatearekin lotutako proiektu ekintzaile bat diseinatu eta aurkeztu beharko dute. Aurkezpena epe baten barruan egin beharko da, hain zuzen, igogailu-bidaia batek irauten duen denboran, 2 minutu baino gutxiagoan alegia.

JARDUERAREN XEDEA

1. Aurkezpen bat prestatzea profesionaltasunez
2. Haien lan-esparruan berrikuntza eta sormena sustatzea
3. Epe mugatu batean publikoaren arreta deitzeko estrategiak lantzea


JARDUERAREN GARAPENA

1. Fasea: Prestatzea

1. Urratsa:

Dozentek ikasleak TwinSpace-n erregistratzen dituzte, sartzeko gakoak eta helbidea ematen dizkiete: <http://twinspace.etwinning.net>

1. Tutorialerako esteka: **Twinspace-n ikasleak nola erregistratu** https://es.slideshare.net/SNA_etwinning/como-registrar-a-alumnos-en-el-twinspace



Name	Role	Country	City	School	Last login	Actions
Eduardo Garcia	Pupil	Spain				Reset password Delete
Julia Sartre	Pupil	Spain				Reset password Delete
Laura Sans	Teacher administrator	Spain	Madrid	Profesorado FP	08.08.2018 20:29	

2. Urratsa: Aurkezpenak

Horma birtual bat sortuko da <https://dotstorming.com> edo antzeko webgune bat erabiliz. Hormaren izena “Niri buruz partekatu nahi ditudan lau gauza” izango da.

2. Tutorialerako esteka: Dotstorming-i buruzko tutoriala

https://www.youtube.com/watch?v=5M2keRMCr_c

3. Urratsa: Irakasleek “**Aurkezpenak**” izeneko jarduera-orri bat irekiko dute TwinSpace-n. Orri hori sortutako horma birtualean txertatuko da.



!!Bienvenidos/as a este proyecto!! ¡Espero que aprendamos mucho de esta experiencia compartida!

Para empezar a trabajar, necesitamos conocernos. Así que cada uno de vosotros/as tiene que poner cuatro cosas que queráis que sepamos el resto de compañeros/as. Podéis poner vuestra edad, país, el Ciclo Formativo que estáis realizando y vuestras aficiones personales en el tablero digital que tenéis a continuación. Una vez hayáis realizado vuestro post, debéis leer los posts de vuestros compañeros/as, escoger uno que sea de otro país diferente al vuestro y comentar alguna cosa sobre éste.

Cuatro cosas que quiero compartir sobre mi

1 vote available

Chat Enabled:

mavila 7:02 PM
Julia y Eduardo, me han gustado mucho vuestros posts. A mi también me gusta la música de Beyoncé!

Participants 1 Enabled:

Mi nombre es Julia Sartre. Tengo 19 años, vivo en Madrid(España) y estudio un Ciclo Formativo de Grado Superior de Gestión Comercial y marketing.
Me gusta escuchar música y conocer nuevos amigos.

Me llamo Eduardo Garcia. Tengo 17 años, vivo en Greystones(Irlanda) y estudio el Ciclo Formativo de Grado Medio de Técnico en Sistemas Microinformáticos y Redes.Me

3. Tutorialerako esteka: Twinspace-n jarduera-orri bat nola sortu.

<http://etwinning.es/wp-content/uploads/2016/01/C%C3%B3mo-crear-una-p%C3%A1gina-de-actividades-en-el-Twinspace.pdf>

2. Fasea: Praktikan jartzea

4. Urratsa:

Ikasle bakoitzak berari buruz ezagutzera eman nahi dituen lau gauzei buruzko aurkezpen pertsonal motz bat prestatuko du eta gauza horiek dotstorming-horman jarriko ditu. Adina, hiria eta lurraldea, Lanbide-Heziketakoren ziklo ikasten ari diren eta haien zaletasunak jar ditzakete. Ondoren, ikaskideen postak irakurriko dituzte, atzerriko bat hautatu eta deigarria iruditu zaion zerbaiti buruzko iruzkin bat utzi beharko dute. Ikastetxe kideetako ikasleekin harremanetan jartzeko modu bat da.

5. Urratsa:

Irakasleek lantaldeak antolatzeko sistema adostuko dute. Taldeak espezialitatearen arabera antolatzen saiatuko dira (bigarren bat gehi dezakete). Taldekatzeak koordinatzeko, TwinSpace-ko bideokonferentzia erabiliko da. Bilera horren argazkiak atera eta Proiektuaren Egunerokora igo daitezke.



¡Hola a todos y todas!

Aquí os dejamos una foto de la videoconferencia del pasado día 8 de enero donde los profesores/as organizamos los grupos de trabajo internacionales.

Ahora, con los equipos ya formados, iniciamos el diseño de nuestros proyectos profesionales.



4. Tutorialerako esteka: **Bideokonferentzia-tresna eTwinning proiektuetan:**
<http://etwinning.es/la-herramienta-de-videoconferencia-en-los-proyectos-etwinning/?lang=es>

6. Urratsa:

TwinSpace-n orrialde bat sortuko da eta, bertan, ikasleen Lanbide-Heziketako zikloaren (edo beste irizpide baten) arabera sortu diren lantaldeak argitaratuko dira.



EQUIPOS DE TRABAJO

Éstos son los equipos de trabajo de acuerdo con el Ciclo Formativo que estáis cursando.

EQUIPOS DE TRABAJO ETWINELEVATOR PITCH

Nombre Miembros	Equipo Rojo	Equipo Azul	Equipo Verde	Equipo Amarillo	Equipo Violeta
	Servicios Socioculturales	Administración y gestión	Madera, mueble y Corcho	Química	Transporte y mantenimiento de vehículos
España 	<u>Pablo, Lucía</u>	<u>Juan, Isabel</u>	<u>Carlos, Susana</u>	<u>Pedro, Julia, Teresa</u>	<u>Patricia, Belén, Javier</u>
Grecia 	<u>Apostolis, Ariadne</u>	<u>Patrick, Annita</u>	<u>Cleo, Constante</u>	<u>Femke, Guerrit</u>	<u>Dapne, Beppie</u>
Turquía 	<u>Onur, Murat</u>	<u>Karem, Eren</u>	<u>Sila, Elma, Zeynep</u>	<u>Ihan, Tarkan, Iskander</u>	<u>Dilek, Elif</u>
Francia 	<u>Nicolle, Amelie</u>	<u>Pierre, Dennis, Pau</u>	<u>Arieth, Noe, Kalet</u>	<u>Noelia, Brandon, Macey</u>	<u>Alizée, Lebron, Bertran</u>


7. Urratsa: “LH-ko Proiektu Berriak” izeneko orrialde bat sortuko da TwinSpace-n. Bertan, ekipo bakoitzak bere lanbide-espezialitatearekin lotuta aurkez ditzakeen proiektu berriei buruzko ideak proposatuko ditu. Proposamenak *realtimeboard* <https://realtimeboard.com> tresnan (edo antzeko batean) partekatuko dira.



5. Tutorialerako esteka: Realtime Board plataformari buruzko bideo-tutoriala https://www.youtube.com/watch?v=FZXMGty7_LE

8. Urratsa:

Dozentek nazioarteko ekipoentzako foro bana sortuko dute. Foroan AAIA analisi bat (Ahulguneak, Arriskuak, Indarguneak eta Aukerak) antolatu beharko da, esteka honetan eskuragarri dagoena: <https://dafo.ipyme.org/>. Ekipo bakoitzak proposamen bakoitzaren bideragarritasuna aztertuko du eta ekimen komun bat adostuko dute.



9. Urratsa:


Ekipo bakoitzarentzako azpi-orrialde bat sortuko da TwinSpace-n, “**LH-rako Proiektu Berriak**” orrialdearen azpian, haien aurkezpenaren indarguneak laburbilduko dituen poster txiki bat argitaratzeko. Ekipoek posterra egiteko <https://www.easel.ly/> (edo antzeko bat) erabil dezakete. Ondoren, posterra ekipoaren azpi-orrialdean txertatuko da.



6. Tutorialerako esteka: **Easel.ly erabiltzeko bideo-tutoriala**
<https://www.youtube.com/watch?v=Jerk0MyfGY4>

10. Urratsa:


“Elevator Pitch. Tienes 20 segundos-educaixa” bideoa ikustea (https://www.youtube.com/watch?v=2b3xG_YjgvI). Aldez aurretik bideoa TwinSpace-ko Materialak-Bideoak atalera igoko da kide guztiek sarbidea izan dezaten bideoa eta ikasleei erakutsiko zaie.



5. Tutorialerako esteka: **TwinSpace-n bideoak kudeatzea.**
<http://etwinning.es/es/gestion-de-videos-en-el-twinspace/>

11. Urratsa:

Elevator Pitch-Consejos de preparación bideoa (https://www.youtube.com/watch?time_continue=23&v=uv357YzY7-k) Materialak-Bideoak atalera igoko da eta bideoa orrialde horretan txertatuko da. Ekipo bakoitzak bere proiektuaren aurkezpena prestatuko du bideoaren jarraibideak errespetatuz.



12. Urratsa:

Ekipo bakoitzak bere proiektuaren proposamena ahoz aurkeztea. Bigarren bideokonferentzia bat antolatuko da. Proiektuen aurkezpenak laburrak izango dira (2 minutukoak gehienez).

Aurkezpena bukatutakoan denbora-tarte bat utziko da ikasleek zalantzak argitzeko galderak egin ditzaten.

13. Urratsa:


“eTwinelevator Pitch aurkezpenen bideoak” orrialdea sortuko da. Bideokonferentzian egindako aurkezpenen bideoak igoko dira bertara.



6. Tutorialerako esteka: **Online ekitaldi bat (bideokonferentzia) nola grabatu.** <http://etwinning.es/ca/materiales-de-ayuda/ayuda-etwinning/como-grabar-un-evento-online-videoconferencia-y-como-recuperar-la-grabacion-en-etwinning-live/>

14. Urratsa:


TwinSpace-n orrialde berri bat irekiko da: “**Proposamenen bozketak**”. Proposamenen bozketa antolatzeko eta onarpen handiagoa dutenak ikusteko dokumentu bat sortuko da <https://www.tricider.com/> (edo antzeko bat) erabiliz. Tricider dokumentua orrialdean txertatuko da.



3. Fasea: Datuak jasotzea, jakitera ematea eta ebaluatzea

15. Urratsa:

TwinSpace-n orrialde berri bat sortuko da: “**Lan kooperatiboaren koebaluzioa eta autoebaluzioa**”. Ekipo bakoitzarentzako galdetegi bat prestatuko da eta orrialdera igoko da. Ikasle bakoitzak bere autoebaluzioa eta ikaskideek egindako talde-lanaren ebaluzioa egingo du.



<https://goo.gl/forms/dzLZf4ctgKXwPyj53>

7. Tutorialerako esteka: **Google Drive erabiliz galdetegi bat sortzea**

<https://www.youtube.com/watch?v=LMFoajXjwkA>

AURREIKUSITAKO PRODUKTUA(K)/EMAITZA(K)

- Ikasleen aurkezpen pertsonalak eta haien arteko hartu-emana agertzen dituzten horma-irudiak.
- LH proiektuetarako ideia berrien horma-irudi kolaboratiboa-brainstorminga.
- TwinSpace-ko jarduera-orriak Elevator Pitch ereduari jarraiki egindako aurkezpenen bideoekin.
- Argazkiak eta bideokonferentzien grabazioa.

TWINSPACE-KO TRESNAK/ KANPOKO 2.0 TRESNAK

- TwinSpace-n: ikasleen foroa, argazkiak partekatzea, jardueraren bideoa eta bideokonferentziarako tresna.- Realtimeboard <https://realtimeboard.com>.- Proposamenen bozketa, Tricider, <https://www.tricider.com/>
- –Ikasleen koebaluazioa eta autoebaluazioa: <https://docs.google.com/forms>
- –Aurkezpenak laburbiltzeko posterrak, Easel.ly, <https://www.easel.ly/>
- –Taula edo horma digitalak: Dotstorming <https://dotstorming.com>,
- <https://www.tricider.com/>